

FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal hau, gure proiektua funtzionatu ahal izateko egin behar ditugun ekintzaz arduratzen da. Hau da, balio-proposamena sortzeko egin behar ditugun prozesuak eta jarduerak, noski, hoiien artean lehentasunak jarritz.

Gure funtsezko jarduera aplikazio bat sortzea da, eta honekin bezeroen arazoak konpontzea eta gizartean, hezkuntzaren arloan, ongizatea lortzea. Hori lortzeko, klase birtualak emango dituzte EHUko ikasle batzuek, Euskal Herriko hainbat insititututako ikasleen zalantzak argitzeko.

Gure proiektua aurrera eramateko, Aimarrek aplikazioa sortuko du, honi buruzko ikastaro bat eman baitu. Luciaren kasuan, aplikazioa sortzeko antolaketaz arduratuko da, bere lidergoa eta negoziazioan duen esperientziari esker. Enpresak izango dituen kostu eta sarreraren aurrekontua egiteko eta aplikazioan inbertituko den dirua kudeatzeko Alba arduratuko da, ekonomia eta finantza arloan hainbat ikasketa ditu eta. Aplikazioa Play Storen eta App Storen instalatzeko egongo da eta bezeroek euro bat ordaindu beharko dute hau deskargatzean, gero, aplikazioa erabiltzeagatik, hilero 1,50€ ordaindu beharko dute.

Bestalde, Anek kontaktu ugari ditu Euskal Herritik zehar, gainera, milaka jarraitzaile ditu eta hainbat lekutara heltzea lagunduko digu. Azkenik, Aneren ezagutzak internetetik zerbitzuak iragartzeko dituen ezagutzei esker, Aneren Instagrameko kontuan gure aplikazioaren berri ematen lagunduko digu.

Baliabide fisikoei dagokionez, bulego bat beharko genuke klaseak bertatir eman ahal izateko, beraz, alokatutako leku bat izango zenez, alokairua ordaindu beharko genuke. Horrekin batera kostu materialak datoz, hala nola ordenagailuak, telefono finkoak eta unibertsitatean jarriko genituzkeen kartelak. Horrez gain, langileen soldatak ordaindu beharko genituzke, 1000€ ingurukoa izango litzeteke hilero.